



Bizkaiko itsasoko ura **gradu bat(ez)** igo da aldaketa klimatikoa dela eta.



Zenbait aditzekin, hala nola *goratu*, *igo*, *beheratu*, *jaitsi*, *handitu* eta horien gisakoekin, batzuetan, neurri-esapide bat erabiltzen da, aditzak adierazten duen ekintza zenbat edo zer neurritan gauzatu den jakinarazteko. Neurri-esapide hori ez da inesiboan [*gradu(t)an*] jokatu behar, baizik absolutibo mugagabea (*gradu*) edo instrumental mugagabea (*graduz*).



- Bilboko auzo garestienetan, **700 euro(z)** merkatu da metro koadroa; Donostian, **1.035 euro(z)**, eta Gasteizen, **650 euro(z)**.
- *Bilboko auzo garestienetan, **700 euro(t)an** merkatu da metro koadroa; Donostian, **1.035 euro(t)an**, eta Gasteizen, **650 euro(t)an**.





- Zientzialariek uste dute azkeneko neurketa egin zenetik **1,3 metro(z)** txikitu dela Everest.

- *Zientzialariek uste dute azkeneko neurketa egin zenetik **1,3 metro(t)an** txikitu dela Everest.





Adibide gehiago:

- Lan-merkatuak izan duen balantzeak erakusten duenez, okupazioa % 0,7(z) goratu da, eta langabezia-tasa bi hamarren (ez) beheratu.
- Zenbat gradu(z) jaitsi zen tenperatura?
- Lurreko tenperatura 4,8 gradu(z) igo daiteke mende amaierarako.
- 20 urterako 120.000 euroko hipoteka dutenei kuota bost euro(z) merkatu zaie hilean.
- *(...) % 0,7an goratu da ... bi hamarrene(t)an beheratu.
- *Zenbat gradu(t)an jaitsi zen tenperatura?
- *(...) 4,8 gradu(t)an igo daiteke...
- *(...) bost euro(t)an merkatu zaie...



Adibide gehiago:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Euriborrak gora segitzen du, eta hipotekak 1.380 euro(z) garestitu dira iazko urritik hona. | <ul style="list-style-type: none"> • *(...) 1.380 euro(t)an garestitu dira ... |
| <ul style="list-style-type: none"> • Ezkerreko ertzeko espaloia 2,75 metro(z) handitu da. | <ul style="list-style-type: none"> • *(...) 2,75 metro(t)an handitu da. |
| <ul style="list-style-type: none"> • (...)10 puntu baino gehiago(z) hobetu da ehuneko hori hogeitaz urte horietan. | <ul style="list-style-type: none"> • *(...) 10 puntu baino gehiago(t)an hobetu da... |
| <ul style="list-style-type: none"> • Euskadi % 6(z) hobetu da berrikuntzan, baina Europako batezbestekoaren azpitik dago oraindik. | <ul style="list-style-type: none"> • *(...) % 6an hobetu da . |